26. FITXA

Izena: _____

Eguna: _____

Egun batean

Egun batean, ikusi nuen
eulia soinua jotzen,
haren ondoan, zoraturikan,
arkakusoa dantzatzen,
zimitza berriz, dotore jantzita,
errefreskuak partitzen,
haien ondoan, bi zorri handi
barrez eztulka itotzen.



Mixmix katua

Katuen herrixkan bizi da
gure Mixmix katua.

Egunero goiz jaikitzen da,
garaiz ibiltzea atsegin du eta.

Ureztailuaz bainatzen da,
txukun orraztu, amari lagundu
eta gosaldu egiten du:
arrautzak, esnea eta ogia.

Motxila ondo aztertu,
ezin zaio ezer ere falta,
eta eskolara iristean,
denak agurtu: «Miau, miau!»

1 Lotu gezien bidez.

eulia	dantzatzen
arkakusoa	errefreskuak partitzen
zimitza	barrez itotzen
bi zorri	soinua jotzen

2 Nola du izena bigarren olerkiko katuak?

_____

3 Idatzi **E egia bada** eta **G gezurra bada**.

Olerkiko katua goiz jaikitzen da zeren:

- ☐ Ez baitu lorik egiten gauez.
- ☐ Garaiz ibiltzea gustatzen baitzaio.
- ☐ Saguek esnatu egiten baitute.
- ☐ Gosaria kenduko dioten beldur izaten baita.

4 Jarri ordenan katuak egiten duena. Idatzi **1, 2, 3** eta **4**.

- ☐ Jaiki.
- ☐ Gosaldu.
- ☐ Amari lagundu.
- ☐ Bainatu eta orraztu.

5 Eskolara iristean, zer esaten du katuak ikaskideak agurtzeko?

_____